



'PAPIRO FLEXIA' IKUSKIZUNA BIHAR LEIDORREN

Emanaldiak hip-hopa, musika eta bideo sorkuntza batzen ditu; 20:30ean izango da 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-11-12

VIIURTEA 1.825 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



San Martin Egunean eguraldiak etenalditxo eskaini zuen eta herri kirol erakustaldia egin ahal izan zen. E.MAIZ

SAN MARTINEKIN BATERA BAREALDIA ERE HELDU DA

TOLOSALDEA Ez zen euririk izan atzoko San Martin Egunean; Alkizan, Amasan eta Amezketan ekitaldi ugari egin zituzten eguna ospatzeko 5

Udalak 'Uxola' omenduko du bere lanaren adierazgarri

TOLOSA Bihar, jaiotetxean jarritako oroitarriaren inaugurazioa egingo dute eta Maddi Soroak bere biziari buruz idatzitako biografia aurkeztuko dute 2

XABIER ZABALO LEITZAKO ALKATEA

«Azken 30 urteetan babesturiko etxebizitza bakar bat ere ez da egin»

LEITZA 40 etxebizitza babestu egingo dituzte Landa Goikoan; 2012 ingururako amaituko dira 7

Lur desjabetze akten sinadura ekitaldia salatzeko protesta

TOLOSA 30 lagun inguru bildu ziren udaletxearen aurrean Elkarlanak deituta 3

Hamaikagarren aldiz ospatuko dute Azoka Eguna, 15 posturekin

BERASTEGI Animalia Erakusketa, Gazta Lehiaketa,... egingo dituzte 6



bi sarrera pare

PAPIRO...FLEXIA
Breakdance multimedia show emanaldirako



Azaroak 13 ° Ostirala

20:30ean

Tolosako Leidorren

TXOKA hitza

sarrera pare bat

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren baitan ospatuko den bertso saiorako



Azaroak 14 ° Larunbata

17:30ean

Tolosako Usabal Kiroldegian

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



sarrerak

sarrera pare bat

ASPEK antolatutako binakako partidetarako



Azaroak 16 ° Astelehena

16:30ean

Tolosako Beotibar pilotalekuan

Estanislao Urruzola Bitoria, 'Uxola', jaino zela mende bat betetzen da bihar. Tolosako Udalak omenaldia eskainiko dio bizitzan zehar herriarentzat egin zuen lanaren adierazgarri.

Mende batez 'Uxola' gogoan

AINHOA ALTUNA

Ehun urte beteko dira bihar euskaltzale eta idazle tolosarra jaino zela. *Uxolaren* oroimena bizirik mantendu nahian, Tolosako Udalak bihar iluntzeko 19:00etan bere jaiotxean jarritako oroitarriaren inaugurazioa egingo du. 19.30ean berri, Maddi Soroak *Uxolari* buruz idatzitako liburuaren aurkezpena egingo du udaletxean. *Bidegileak* bildumaren baitan idatzi du liburua kazetariak. Jaurlaritzak urtero bilduma bat argitaratzen du. Lau autoreren inguruan idatzitako liburuxkak izaten dira. Bilduma hau EAEko ikastoletan banatzen da baina aurten, *Uxolaren* urteurrenaren harira, ale gehiago argitaratuko dituzte, 2.300 ale gutzira. Tolosako Udalak, bihar arratsaldean egingo den omenaldian eta idazlearen omenez urtero antolatzen duen literatur sariketan emango ditu.

Lan isilen idazlea

1909ko abenduaren 13an Vinos Mendieta etxean jaio zen Estanislao Urruzola Vitoria. Zazpi senidetan zaharrena izan zen. 16 urte betetzerako merkataritza ikasketak amaitu zituen Eskolapioetan. Gaztetatik setatsu eta arduratsua omen zen. Bere idealak defendatzearen gustuko. Politikarekin lehen harremanak Ayerza bizikleta tailerlean izan zituen. Ama euskaltzalea eta aita karlista zituen. *Uxola* berriz, 20 urterekin EAJko kide egin zen. Bertan ikasi zuen euskaraz. Lizardi maisu zuela. Bere afizio nagusiak dantza eta mendia izan ziren.

36ko gerratean soldadu ibili zen. Hasieran, Beizaman, Ermio alde-

Politikarekin lehen harremanak Ayerza bizikleta tailerlean izan zituen 'Uxola'-k

an; Igorre, Artxanda eta Laredon ondoren. Hemen preso hartu zuten 12 urteko zigorra ezarrita. Espetxean zela *Metodo Aleman* idatzi zuen, bizi izan zituen torturen eta gerragordinaren berri emanaz. Herria utzi eta Valentziako Burrianara alde egin zuen baina herriminak jota Tolosara bueltatu zen 70. hamarkadan. Ondoren, isilpeko sindikalgitza aritu zen lanean. Jubitlatu arte, Eskolapioetan aritu zen irakasle lanetan. Artiku-



'Bidegileak' liburuaren azala.

lu, nobela, bertso, olerki eta antzerki lan ugari idatzi bazituen ere, asko geratu ziren argirik ikusi gabe. *Euzkadin*, *Argian*, *Lan Deyan*, *Zeruko Argian* eta beste hainbat aldizkaritan hainbat artikulu idatzia da *Uxola*. Lau eleberridatzi zituen tolosarrak. *Andoni*,

Pelotaria, *Xixoriren gertaera* eta argitaratu zen bakarra, *Ezpala*.

«Hasieran eleberrigintzari ekin banion ere, antzerkira itzuli nintzen gero. Eleberririk argitaratzea baino antzerkiak antzokietan agertzea errezago dela badakigu, eta gure hizkuntzarentzat onuragarriago ere bai». Hori adierazi zuen bizirik zen artean. 50 antzerki obra inguru idatzi zituen. Bertsozale porrokatu zuen *Uxola*. *Eusko Gudariak* olerki ezaguna ere berea da.

Euskalkien maitalea

Euskararen defendatzaile sustuetakoa zen *Uxola*. Euskaltzaindiarekin ez zuen oso harreman ona izan. Tolosarrak ez zuen Euskara batua oso gogoko, hizkuntza artifiziala zela esaten zuen. Euskararen bateratzea pixkanaka eta modu naturalaren egin nahi zuen, ez erdaratik eta frantsesetik hitzak hartuaz egin. Euskalkiak maite zituen eta beraien garrantzia sustuki defendatzen zuen. Euskarazain izan zen hainbat urtetan.

Zenbait omenaldi egin zizkion idazleari bizirik zen artean. Ezagunena, hil zen urtean, 1986an egindakoa. Tolosako Udalak, San Juan Literatur Sariari *Uxola* Literatur Saria izena jarri zion. Oraindik orain, urtero egiten den sariketa da berau.



'Uxola' gazte garaian mendizaleaz jantzita.

«Berdin zitzaion bidean zer oztopo topatu, bera beti lanerako prest»

MADDI SOROA > Liburuaren idazlea

Kultura >> Idazleak garai gogorretan euskararen eta bere idealen alde egindako lana emango dute ezagutzera bihar.

A. ALTUNA

Maddi Soroa Hernandezek idatzi du *Uxolaren* biografia liburua. 26 urteko kazetari, argazkilaria eta hezitzaile tolosarrak, idazleak bizi izandako gertaren eta bere lanen berri ematen du orduko argazki eta kontakizunetan oinarrituta.

Norena izan zen liburua idaztearen eskaintza? Nola gauzatu zen? Jaurlaritzak protagonistaren herriko edo inguruko norbaiti ematen dio lana egiteko aukera. Kasu honetan, Joxemari Iturrulerdi eskaini zioten baina lan askorekin zebilela eta ez zitzaionez ongi etortzen mementoa, niri eskaini zidan liburua egiteko aukera. Nik baiezkoa eman nion.

Idatzi berri duzun lana biografia liburu bat bezala ala omenaldi gisan ikusten duzu? *Bidegileak* berez, biografia liburuz osatutako bilduma bat da. Hilda dauden eta oraindik bizirik dauden autoreen biziaren kontaketa

egiten da. Jaurlaritzaren helburua euskararen alde Euskal Herrian lan egin dutenen aldeko eskertza edo errekonozimendua egitea da. Tolosako Udalaren kasuan, idazleari egindako omenaldi bat da. **Zer da ezinbestekoa idazle baten ospe eta izenak ahazturan erori gabe iraun dezan?**

Garrantzitsuenak bere lanak argitaratzea izango litzateke. *Uxolaren* kasuan ordea, asko idatzi zuen baina antzerki obra bat, sariketaren batean irabazitako bertso batzuk, eta ipuinxoren bat besterik ez zuen argitaratu. Bere lan asko galdu egin ziren batetik bestera... Bestetik, berak asko idatzen zuen baina zakarretara botatzen zituen idatziak. Idazle azkarra zela esango nuke, burura etorritakoa mementoan idatzen zuen horietakoa zen. Ideiak garbi zituen pertsona bat zen eta jende asko izan zuen aurka. Gogoratua izateko beraz, jendearengana iristea dela helburua esango nuke.

Nola definituko zenuke liburuiko protagonista?

Pertsona oso egokorra bezala definituko nuke. Oso borrokatzailea eta kementsua izan zen bizitza osoan. Nik ez nuen ezagutu baina ezagutzen zuen jendeak adierazi didanaren arabera gauzak oso argi



HITZA

zituen *Uxolak*. Hainbatetan kartzelaratua eta torturatua izan zen, batzokitik bidali zuten, jendearn arazoak zituen... baina hala ere, berdin zion bidean zer oztopo topatu, berak beti lanean jarraituko zuen.

Zergatik deitzen diogu 'Uxola'?

Bere semearen arabera, familia mendizalea izan omen zen betidira Urruzola familia. Ermiora askotan joaten omen ziren eta bertako urritzen eta errekarren hotsetik omen dator *Uxola* ezizena. Bada ordea beste teoriarik ere. Bere aitoren etxearekin ere zerikusirik izan omen dezake... Egia esan izeenez baino ezagunagoa da ezizezez.

Bizi zen bitartean omenaldirik ja-

sotakoa izan zen 'Uxola', hil ondoren ezagunena literatur sariketa dugu. Oraingoan liburua argitaratu da bere bizi kontatuz. Zer eskaini zion Tolosari eta orokorrean euskaldunoi?

Tolosako ezaugarri bezala inauterietarako egindako abestiak. Hainbat abesti ateratu zituen elkarrengatik. Orokorrean, euskararen alde lan asko egin zuen. Euskara Batua ez zuen gustuko eta Euskaltzaindiari aurre egin zion. Euskalkiak maite zituen. Horretan *Uxolarekin* bat nator, hortxe baitago aberastasuna. Alkizako batek eta Bermeoko batek ez dute berdin hitz egiten. Euskara batua oso artifizialtzat jotzen zuen. Euskaldunei beraz, asko idatzi zuela eta asko borrokatu zuela batzuei ongi ez irudituen arren. Inork euskaraz idatzen ez zuen garaian, berak euskaraz idatzen zuen. Erdarazko egunkarietan euskaraz erreseñatxoak jartzen zituen... Liburua egiteko garaian nire informazio iturriak Xabier semea eta Kike Amonarriz izan dira. Gai askoren inguruan dokumentazioa ere ez zegoenaren sentsazioarekin geratu naiz. Bestetik, politikaren gaian adibidez ez naiz gehiegi barneratu. Batzuentzat borrokalariaren bitartean, ganik Urruzola familia. Ermiora askotan joaten omen ziren eta bertako urritzen eta errekarren hotsetik omen dator *Uxola* ezizena. Bada ordea beste teoriarik ere. Bere aitoren etxearekin ere zerikusirik izan omen dezake... Egia esan izeenez baino ezagunagoa da ezizezez.



Ertzaintzaren presentzian burutu zuten elkarretaratzea, atzo. I.T.

Protestak lur desjabetze akten sinadurengatik

AHT » Elkarlanak deituta 30 lagun inguru bildu ziren atzo Tolosako udaletxearen aurrean, ekitaldia salatzeke.

I. TERRADILLOS

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo goizean, Tolosako udaletxearen aurrean, une horretan burutzen ari ziren «lur desjabetze akten sinadura ekitaldia salatzeke». 30 lagun inguru bildu ziren elkarretaratzean, tartean, lurjabe batzuk, «ez sinatzea erabaki dutenak».

Elkarlanak adierazitakoaren arabera, «sinaketa horiek AHTren obrak hasia ahalbidetuko dute, eta Espainiako Sustapen Ministerioak trenbide zati honen hasiera emateko pausu berri bat emango du». Halaber, Tolosako aktek Aldaba Txiki auzoan eraikiko den hondakindegia dutela helburu azaldu zuten; «horixe izanda eten-gabe gainditzen saiatu garena,

zuhaitzetara igoz, manifestazioak eta mendi martxak antolatuz...».

Itsasondan bi atxilotu

Tolosan bezala, Itsasondan ere deituta zegoen atzo goizerako protesta ekitaldia, bertako udaletxean ere sinadurak egin behar baitzituzten. Hala, bi pertsona udaletxe-katean sartu ziren akten sinadurak ekiditeko, eta ondorioz, ezin izan zuen inork sartu, eta ez zuten aktarik sinatu. Kateaturiko bi pertsona gain, 30 lagun inguru izan ziren protestan. Tentsio une-ak egon ziren, eta Ertzaintzak bi lagun atxilotu zituen.

Urte amaierarako lanak hasita

Beasain ekialdean eta Ordizia-Itsasondo zatian hasita dauden obrak, Beasain mendebaldekoak, Legorretakoak eta Tolosakoak gehituko zaizkiela datozen bi hila-beteetan adierazi du Eusko Jaurlaritzak. Halaber, 2010 urte bukatetarako, Gipuzkoan 44 kilometro esleituta edo obratan egongo direla azaldu dute, zati osoaren erdia baino gehiago, beraz.

Denboraren Bankuaren bigarren bilera egingo dute gaur, 18:00etan

ERREDAKZIOA

Tolosako Berdintasun Sailak antolatuta Denboraren Bankuaren bigarren saioa izango da, gaur, udaletxeke batzar aretoan, 18:00etan. Denboraren Bankua elkartasuna eta emakumeen arteko sarean sustatu nahi duen egitasmoa da. Denbora eta lan trukaketa ildotzat hartuz Tolosaldeko Emakumeak inplikatzeko da helburua. Parte-hartzaileekin finkatu nahi dute egitasmoa.

Xabier Arzallusen hitzaldia izango da gaur, Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Uzturre Fundazioak antolatuta, gaur hasita, hitzaldi sorta bat egingo dute, abertzaletasunaren inguruan. Xabier Arzallus izango da lehendabiziko hizlaria. Tolosako Kultur Etxean izango da 19:30etik aurrera, *Euskal Herria, mapa bat baino gehiago*.

Guztira, lau hitzaldi izango dira, etra hauen ostean, abenduaren 3an, Zerkausion ekitaldi jaialdi politikoa egingo dute.



Azken erailketengatik elkarretaratzea

GENERO INDARKERIA » Tolosaldeko Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo Triangulon, azken erailketak salatzeke. Izan ere, gizon batek bere emaztea eta amaginarreba hil zituen astelehenean tiroz, Irisarrin. Ondoren bere buruaz beste egiten saia-

tu zen gizonetzako herenegun goizaldean. Honen semeak harrapatu zuen bere burua urkatzen ari zela. Bestalde, Leitzako Bilgune Feministak herritar guztiei deialdia egin die, gaur, 20:00etan Kale Nagusian egingo den elkarretaratzean parte hartu dezaten. I.T.

Finalurreko saioa etzi

Bertsolaritza »

Finalurrekoetako hirugarren saioa jokatu dute etzi, Tolosako Usabal kiroldegian, 17:30ean.

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan sartu zen finalurrekoetan Bertsolari Txapelketa Nagusia. Bergaran izan zen lehendabizikoa, eta bertan aritu zen Aitor Mendiluze irurarra. Txapelketa Nagusian bere lehendabiziko parte-hartzea izan zen, eta emaitza ezin hobea izan zuen, bigarren geratu baitzen Maialen Lujanbioren atzetik. 708,5 puntu batu zituen hernaniarrak, eta 680 puntu, Mendiluzek. Hori kontuan hartuta, finalera sailkatzeko aukera handiak izango ditu irurarrak. Asteburu honetan beste bi finalurreko saio izango dira, horietako bat, gainera, eskualdean, Tolosan, hain zuzen ere.

Etzi izango da finalurrekoetako hirugarren saioa, Tolosako Usabal kiroldegian, 17:30ean hasi-



Aitor Mendiluze Bergarako saioan. BERTSOZALE ELKARTEA

ta. Igor Elortza, Sustrai Colina, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi, Iñaki Gurrutxaga eta Ainhoa Agirreazaldegi ariko dira bertsotan, eta Sarroi Jauregi izango dagai-jartzailea. Tolosako saioa ikusteko Internet bidez salgai zeuden sarrera guztiak agortuta daude, beraz larunbatean leihatilari eskuratu ahalko dira soilik, 200 sarrera jarriko baitituzte.

Igandean, berriz, Hendaian izango da laugarren saioa, 17:30etik aurrera. Amets Arzallus, Jon Maia, Jone Uribe, Aitor Sarriegi, Julio Soto eta Onintza Enbeita ariko dira.

Bigarren itzulirako txartela

Hendaiaiko saioa amaitu ostean jaitzki agortuta daude, beraz larunbatean leihatilari eskuratu ahalko dira soilik, 200 sarrera jarriko baitituzte. Igandean, berriz, Hendaian izango da laugarren saioa,

Zuzenketa. Igandeko Behobia-Donostia lasterketako eskualdeko parte-hartzaileen denborak kaleratu zituen HITZAK astearteko alean, baina ondorengoak falta ziren:

Alkiza

01:22:24 Urko Aranzabe Saralegi (1239)
01:37:38 Balduino Alfonso Gregorio (6558)

Larraul

01:23:38 Andoni Rekondo Etxeberria (1522)
01:43:51 Pilar Herrero Gorroategi (9073)
01:44:47 Jokin Iraola Elosegi (9421)



Laburrak**Gizon eta emakumeen diagnosirako bilera**

ALEGIA ● Gizon eta emakumeen berdintasun diagnosirako eztabaida taldea bilduko da gaur. Herriko talde eta eragileetako ordezkariak zuzenduta dago deialdia. Bilkura, Kultur Etxean izango da 19:00etan.

Hurrengo urterako karroza eta konpartsak

TOLOSA ● Inauterietako karroza eta konpartsen eraikungunea (Feriala) prestatzen ari dira. Abendutik aurrera, 2010eko Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketan parte hartu behar dutenak Feriala erabiltzen hasteko moduan izango dira. Udal gordelekuan dauden plataformak Ferialera eramateaz Udala arduratuko da, baina aurretik ezinbestekoa da jabeek beraien plataforma erabili behar dutela bermatzea. Beraz, udal gordelekuan plataformaren bat dutenak Kultur Etxetik pasa behar dute 15:00etatik 21:00etara bitartean, eta bere plataforma zein den eta atera behar duten edo ez adierazi.

Hernaniko Bandak alaituko ditu Alde Zaharreko kaleak

TOLOSA ● Hernaniko Banda Alde Zaharreko kaleetatik barrena ibiliko da larunbat honetan, hauek alaitzeko asmoz. Arratsaldean hasiko dira hauek zeharkatzen, 18:30etik aurrera, eta Zerkausian, 19:30ean amaituko dute, kontzertu batekin.

'Anticristo' filma gaur, zine-forum saioan

TOLOSA ● Gaur Zine-Forumean, Leidor antzokian, 2009ko film polemikoenetako bat izango da ikusgai. Lars von Trier-en *Anticristo* filma hain zuzen ere. Jatorrizko bertsoan eskainiko da. Lehendabizik emanaldia, 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean.

Hip-hop, musika eta bideo sorkuntza batzen dituen emanaldia, Leidorren

Tolosa » 'Papiro Flexia' lana aurkeztuko dute bihar 20:30ean, Circle of Trust eta Grupo Multimedia taldekoek.

ERREDAKZIOA

Circle Of Trust konpainiak eta Logela Multimedia *Papiro Flexia* ikuskizun berria eskainiko dute bihar iluntzean, Leidor antzokian. 20:30ean hasiko da ikuskizuna.

Circle Of Trust konpainiak hip hopa lantzen du eta Logela Multimedia taldeak, bestalde, ekoizpen digitalak eszenaritzen ditu. Elkarrekin egindako lehen lanak izan zuen arrakastaren ondotik, oraingoan, dantza garaikidea eta gaur egungo joerak islatzen dituzten ikus-entzunezkoak eskainiko dituzte.

Papiro Flexia lanaren helburua da, metaforikoki, papiroflexia eta gizakion sormen prozesua alderatzea. Horretarako, Logela Multimedia irudia eta soinua jarriko



Breakdance dantza estiloa eta multimedia uztartzen dira 'Papiro Flexia' izeneko emanaldian. HITZA

du. Baina kasu honetan, mekanismo berritzaile bati esker, bat-batean egingo dute lan hori.

Dantzariak euren mugimendu indartsuak denbora errealean sortutako irudiekin nahasten dituzte.

Abiapuntua folio txuri bat da, non bere forma manipulatuz milakonbinazio sortu daitezke. Ikuskizun dibertigarria oso.

Circle Of Trust konpainiak, bestalde, hip hopa dantzatzeko du eta

kontzeptu horiei proposamen umoretsu bat gehituko zaio. Ikuskizuna eguneroko gaietatik abiatutako hainbat antzezpenen segida izango da eta oso gomendagarria da.

Tolosa » Bonberenean kontzertua eskainiko dute bihar, Ydilia taldekoekin batera; hilaren 20an aurkeztuko dute lehen lana.

ERREDAKZIOA

Bihar Bonberenean, asteburua ongi hasteko, Lain eta Ydilia taldeak zuzenean entzuteko aukera izango da. Kontzertua 22:30ean hasiko da.

Gazteko Maketa Lehiaketa irabazi ostean, Euskal Herri osoan ospetsu egin da Villabonako taldea. Lain taldeak datorren astean kale-

Disko berria aurkeztar diren honetan, Lain entzuteko aukera

ratuko du taldearen izen bereko estreinako lana. Elkar diskoetxearen zigilupean iritsiko da diskoa eta hilaren 20an egingo dute aurkezpena Bilboko Elkar Megadandan. Aurretik ordea, Gazteak taldearen kantu berri bat doan jaisteko aukera eman du: *Itxaropen hautsien kaxa*.

Bestalde, Xabi San Sebastian, Ken Zazpi, Gose, Chris Kase, Dj Makala eta Dj Zigor Iñaki Salva-



Lain taldea zuzenean entzuteko aukera izango da bihar gauean. HITZA

dor hirukotearekin batera Donostian izango da, abenduaren leian, Mikel Laboa zenari egingo dioten omenaldian. Hauek, abeslari donostiarren bi edo hiru abesti interpretatuko dituzte Victoria Eugenia antzokian.

Lain taldea Kristina Aranzabe (gitarra eta ahotsa) Leire Berasaluze (gitarra eta ahotsa) Imanol Urkola (gitarra) Javi Rivero (baxua) Julen Kaminos (soinu teknikaria) eta Jon Altunak (teklatura eta bateria) osatzen dute. Talde gaztea da Lain, batzate beste 18 urte dituzte. Hala ere, ate handitik sartu da eskualdeko taldea, diskoa kalean izan gabe Bilbao BBK Live jaialdian jotzeko aukera izan zuten. Datozen hilabeteetan ere Euskal

Herriko agertoki ugarrira helduko dira euren kantuak zuzenean aurkezteko.

2007an sortu zen Lain taldea. Hasiera batean, Leire Berasaluze adunarrak eta Kristina Aranzabe billabonatarrek osatzen zuten taldea. Bikotea 2007ko azaroak Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketara aurkeztu zen, eta irabazi egin zuten. Hortik gutxira, kontzertu bat emateko deitu zieten, eta emanaldiekin hasteko, taldea handitzea erabaki zuten. Honela, egun, bost gaztek osatzen dute taldea.

Lainekoekin batera, Lasartereko Ydilia taldekoak entzuteko aukera izango da bihar gauean, Bonberenean.

SOLAGÜEN 2004. urteko ERRESERBAko ardoa
6 botilako kutxa **60€**
12 botilako kutxa **72€**
SOLAGÜEN 2005. urteko ardo ONDUA

REMELLURI 2005. urteko ERRESERBAko ardoa
3 botilako kutxa **40€**
6 botilako kutxa **80€**

BRUT NATURE MAINEGRA
MENDABIARRO CAVA
MAHATS-MATIAK: %50 vitona, %35 parellada, %15 chardonnay.
LEGITIMU ONDUA:
Hogei hilabete baino gehiago.
AUREREN OROZKUR:
Bolumenaren %10, gutxi gorabehera.
6 botilako kutxa **39€**

Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte

943-30 43 45

www.berria.info

harpidetza@berria.info

Bidalketa gastuak doan

6 botilako kutxa
75 cl
36€

saskia!

Euriari lekua hartu eta eguzkia ere San Martin Egunean izan da

Jaiak » Amasa, Alkiza eta Amezketa ospatu zuten San Martin Eguna. Eta asteburuan ere aukera izango da jai giroako.

EMERITZ MAIZ

Eskualdeko herri ezberdinetan San Martin Eguna ospatu zuten atzo. Amasan, Alkizan edota Amezketa esaterako.

Amasan, 10:30eko Meza Nagusiarekin hasi zuten eguna. Hamaitaketa egin ostean, 12:00ak aldera hasi zen herri kirol saioa. Aurretik, eguraldiak ederki lagunduta eta eguzki printzekin batera, trikiti doinuek alaitu zuten Amasako plaza. Otaño eta Otaegi aizkolariak aritu ziren lehian eta bestetik, Izeta II eta Izeta III izan ziren beraien

Eskumuturreko lesio bat tarteko Aimar Irigoienek ezin izan zuen Amasan parte hartu

harriekin erakustaldia egiten. Aimar Irigoien harri-jasotzailea zen izateko baina eskumuturreko lesio bat tarteko ezin izan zuen Amasan aritu.

Saioa amaitu ondoren, giro alaitzeko, trikitalari eta bertsolariak aritu ziren. Eguna bukatzeko, saioiko produktua den mondejuaz dastatzeko aukera izan zuten Mondeju afarian. Gaur, gazteek egun luzea izango dute, goizeko

6:00etatik aurrera, gosaria, bazkaria eta afaria izango baitituzte. 16:30ean Soka-dantza eta Aurrekua dantzatzeko dituzte plazan.

Alkizan igandean bazkaria

Alkizan ere, San Martin Eguna ospatu zuten. 19:00etan meza izan zuten eta jarraian, Lezoko Sutargi abesbatza entzuteko aukera izan zuten. Igandean berri, besteak beste, jai batzordeak antolatutako bazkaria izango dute.

Amezketan Kultur Astean

Amezketan ere, Kultur Astearen baitan ospatu zuten eguna. San Martinen meza izan zuten eta ondoren, Laja eta Landakanda trikitalariak eta Bixente Gorostidi eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak izan ziren giroa alaitzen. Jarraian, bazkaria izan zuten Bearzana jatetxean. Umeek, jangelan izan zuten eta eskolatik atera ostean, 16:00etan *Ino ino badator Bonbardino* antzerkia izan behar zuten baina gaixo zeudela eta abenduaren 11ra atzeratu behar izan dute. Hala ere, Amezketa haurrek, antzerkiaren ordez puzgarriak izan zituzten eta baita aurpegiak margotzeko aukera ere. Eta txokolate beroa ere eman zieten.

Kultur Asteko egitarauarekin gaur jarraituko dute. *Ipar gazi hego geza* 20:30ean balioaniztun gelan ikusteko aukera izango da. Bertan, familia giroan bizikletaz bidaiatzeko esperientzia hurbiletik erakutsiko dute, ekintzak igandera bitarte izango dira.



Bazkaldu ostean bertsolariek saioa egin zuten eta haurrak puzgarrietan ibili ziren. IMANOL GARCIA



» AMASA

Azaroak 13, ostirala

- 17:30. Pirritx eta Porrotxen, *Piratak* emanaldia.
- Ondoren. Txokolate beroa banatuko dute.
- 20:00. XVIII. Bakailao lehiaketa frontoian.
- 23:30. Laiotz taldea.

Azaroak 14, larunbata

- 11:00. Ume krosa. Ondoren, dultzaineroak.
- 14:00. Txekor jatea.
- 17:30. Kantu poteoa.
- 22:30. Bertso Jaialdia: Amets Arzallus, Aitzol Barandiaran, Beñat Gaztelumendi eta Jexux Mari Iragu bertsolariekin. Gai jartzaila: Amaia Agirre.
- Ondoren. Zesatek taldearen kontzertua eta Kantuki taldearen dantzaldia.

Azaroak 15, igandea

- 13:30. Meza eta Idi probak.
- 18:00. Herri Kirolak: ezkonduak ezkongabeen kontra.
- Ondoren. Martina Sorginari agurrera eta XX. Intxorren aldatzea egingo dute.



Otaegi ari da aikorran eta beste aikolaria Otaño izan zen. E. MAIZ

Hirugarren urtez Txerri Festa

Hernialde » Asteburuan txerria hil, zatitu, odolkiak egin eta txerria bera bazkalduko dute. Herri kirolak ere izango dira.

E. MAIZ

San Martin etorri da eta Hernialden ere, asteburuak Txerri Festa antolatu dute. Hirugarren urtez, Hernialdeko Udala eta Ernio-Bide Elkarte dira festa honen antolatuzaileak.

Larunbatean, goizean goiz hasiko dute eguna. Plazan bederatzietarako elkartuko dira eta txerria hilko dute. Behin txerria hil ostean, txerriaren gibela prestatuko dute eta parte-hartzaileek hamaiketa-

ko ederra egiteko aukera izango dute. 16:00etatik aurrera berri, odolkiak egin arituko dira. Eta iluntzean, txerria zatitan txikituko dute. Guztia garai bateko ohiturak mantenduz egingo dute.

Harri berezia jasotzeko aukera

Igande egardian, herri kirol erakustaldia izango dute. Alde batetik Izeta VI eta Tolosa II.a aizkolariak eta bestetik, Jose Beltza eta Bitori harri-jasotzaileak ariko dira. Erakustaldia amaitu ostean, plazan harri bat izango da probarako. Bertarazten den edozeinek jaso ahal izango du harria. Hori bai, jasotzen duen lehenarentzat 50 euroko saria izango da.

Ondoren, 14:00etan, bazkaria izango dute Ernio-Bide Elkartearen

» TXERRI FESTA

Azaroak 14, larunbata


- 9:00. Txerri hiltzea.
- Ondoren. Txerri gibela jatea.
- 16:00. Odolki egitea.
- Iluntzean. Txerri zatitzea.

Azaroak 15, igandea

- 13:00. Herri Kirol erakustaldia: Izeta VI eta Tolosa II aizkolariak eta Jose Beltza eta Bitori harri-jasotzaileak. Bestalde, edozeinek parte hartzeko harri berezi bat egingo da plazan.
- 14:00. Bazkaria Ernio-Bide Elkartearen. Bezperan hildako txerria jango dute.

eta nola ez, menuan, bezperan hildako txerria izango dute.

Komunitate honen ataria berritzera goaz



saldu erosi alokatu bilatu oparitu ...

15 postu inguru bilduko dira igandean Azoka Egunean

Berastegi » Ardi-Ahari-Bildots Txapelketa, Animalia Erakusketa eta Gazta Lehiaketa egingo dituzte.

REBEKA CALVO

15 bat postu bilduko dira igandean 11:00etatik aurrera Berastegiko futbol zelaian izango den Azoka Egunean. Produktu guztiak herrikoak izango dira: «barazkiak, fruitak, gaztak... guztia bailarako izango da eta sukaldeko lanek ere izango dute euren lekutxo, hau da, etxean egiten dituzten mermer-ladak, eztiak, postreak eta antze-

koak ere izango dira salgai», argitu du Sebas Gartziaarena alkateordeak. Era berean, herriko ikasleek ere jarriko dute postua, ateratzen duten diruarekin ikasurte bukaerako bidaia ordaindu ahal izateko.

XI. Azoka Eguna

Euroa sartu zenean pezeten eta euroen arteko aldatuta errazteko egin zuten Azoka Eguna lehen aldiz orain hamaika urte, baina bailarako produktuak plazaratzeko garrantziaz ohartuta urtero egitea adostu zuten Udaleko arduradunek. Bilduko diren 15 postuez gain, hala ere, Azoka Egunean txapelketa desberdinak ere egingo dituzte. Batetik, II. Ardi-Ahari-Bildots



laz Azoka Eguneko Gazta Lehiaketan 15 gaztagilek hartu zuten parte. HITZA

Txapelketa egingo dute. «Bederrati partaide izango dira eta Iparraldeko bi artzain etorriko dira epaile lanak egiteko», argitu du Gartzia-arenak. Bestetik, III. Animalia Erakusketa ere egingo dute eta bertan inguruko animaliak ikusi ahal izango dira; oilar bitxiak, txerriko-meak, pottokak... Bukatzeko, Gaz-

ta Txapelketa ere egingo dute. Iaz 15 gaztagilek hartu zuten parte eta aurten ere antzeko kopurua espero dute antolatzaileek.

Txapelketa hauetako guztieta-ko sariak azoka bukatu eta gero banatuko dituzte, baita Argazki Rallykoak ere. Ardi-Ahari-Bildots Txapelketan hiru sari banatuko di-

tuzte (ahari, ardi eta bildots onenari) eta bakoitzak diploma eta 100 euroko pentsu-balez osatutako saria jasoko du.

Animalia erakusketan, aldiz, partaideen artean 60 euroko pentsu-balea zozketatuko dute eta azokako posturik txukunenak ere jasoko du saria.

Huelvako euskal presoak itxialdi mugagabeen daude

Politika » Protesta senideei 'bis a bis'ak egiteko biluzteko eskatu zitelako hasi dute; artean dira Zelarain eta Egues.

ERREDAKZIOA

Huelvako (Espainia) espetxean dauden euskal presoak, artean Villabonako Julen Zelarain eta El-duaingo Ana Belen Egues, itxialdi mugagabea hasi dute pasa den asteburuan «eman diren jazarpen berriak» salatuz, Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua argitu duenez. Itxialdian daudenez ez dira bisitetara aterako eta «borrokaldia mantenduko dute bisitekin izaten ari diren arazoak konpondu arte».

Izan ere, presoak bisitatzera zihozten senitartekoei bis a bis

egiteko biluzteko eskatu zieten. «Ukoaren aurrean bisitarik gabe geratu ziren. 21 kasu gutxienik badira eta antza Madrildik datorren agindu bat da bisitara doazen senideguztiak katxeatzeko aginduarena. Honen aurrean planto egin dute senideek eta presoek», gaineratu dute.

«Kolektiboarekin amaitzeko apustua»

Horiek horrela, Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua «Espainiar gobernuak Euskal Preso Politikoen Kolektiboarekin amaitzeko apustua argia» egin duela esan du.

«Euskal Preso Politikoen Kolektiboarekin amaitu nahi dute, borroka independentistarekin amaitzeko bidean beharrezkoa dutelako Euskal Herrian erreferentzia politikoa ezinbestekoa duen

eta 750 euskal herritarrek osatzen duten Kolektiboarekin amaitzea», gaineratu dute.

Azken 30 urteetako neurriak

«Azken 30 urteotan Kolektibo honen aurkako neurriak etengabeak izan dira. Bergizarteratze planak, sakabanaketa eta bakartze politika, komunikaziorako eskubidearen murrizketa etengabea, jipoiak eta abar. Aurrez erabili dituzten neurrien porrotak eraman dituzte neurriak berriak pentsatzera eta martxan jartzera», argitu du AAMK.

Azken urteotan «gaixotasun larriak dituzten presoak espetxean mantentzearekin eta biziarako zigorraren aplikazio praktikoaekin» espetxeetako egoera muturrera eraman dutela ere salatu dute, «benetako Guantanamo bat eraiki dutelarik euskal preso politikentzat».

Honekin guztiarekin batera, euskal presoekiko elkartasuna nabarmendu dute, nahiz eta presoek ezarritako «sakabanaketa politikaren ondorioz» azken urteotan 16 senideren heriotza eman diren. «Honekin batera, azken hilebetetan argazkien aurkako sorgin ehizarekin batera, euskal preso politikoei elkartasun bideak zigortzeari ekin diote», gaineratu dute.

Era berean, igande honetan, hilak 15, Etxerat elkarteak Tolosako Leidor antzokian Batzar Nazionala egingo duela gogoratu dute.

Kulturari eskainiko diote datorren asteburua

ERREDAKZIOA

Azken urteetan egin moduan, datorren asteburua kulturari eskainiko izango da Gaztelun. Ohiko ume jolasak, tailerrak eta herri afaria izango dira larunbatean, eta igandean Jubilatuen Eguna ere ospatuko dute.

Hitzaldirik ere izango da aurtengoan, izan ere, etzi Ander Izagirre donostiarrak *Munduaren zain-*

tzaleak izenekoa eskainiko du. Izagirre kazetaria eta bidaiaria kronikaria da eta liburu ugari argitaratu ditu, horien artean *Munduaren Sotoak (Los sótanos del mundo)* eta *Palestina, munduaren zilborra (Palestina, el ombligo del mundo)*. 2008an *Munduen Zaintzaileak (Cuidadores de mundos)* kaleratu zuen eta horixe da Gaztelun aurkeztuko duena.

» EGITARAUA

Etzi, larunbata

■ **16:00.** Eskulan tailerrak haurren zat eskolan. Ondoren merienda banatuko dute Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkarteak.

■ **19:30.** *Munduen zaintzaileak* hitzaldia Ander Izagirrearen eskutik Erroizpe Azpiko Elkarteak.

■ **21:00.** Afaria Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkarteak.

Hilak 15, igandea, Jubilatuen Eguna

■ **10:00.** Bertako baserrien produktuen eta artisauen azoka herriko plazan.

■ **11:00.** Meza nagusia.

■ **13:00.** Jubilatuen bazkaria Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkarteak. Ondoren trikitaliak izango dira.

Laburrak

Bartolaren batzarra gaur, 19:30etik aurrera

IBARRA ■ Ibarra Bartola Jai Batzordeak batzarra egingo du gaur 19:30etik aurrera herriko Benito Izagirre Kultur Etxean. Batzordeko kideek herritar zein talde guztiak gonbidatzen ditu batzarren parte hartu eta ekarpenak egitera.

'El Filtro' liburuaren aurkezpena Gaztetxean

IBARRA ■ Ibarra Gaztetxeak antolatutako Kultur Astearen baitan herriko Jon Mintegiagak *El Filtro* liburua aurkeztuko du bihar, 19:30ean. 22:00etan *Las trece rosas* filma eskainiko dute. Larunbatean amaituko dute Kultur Astea karibear gauarekin.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

XABIER ZABALO ▶ Leitzako alkatea

Azpiegiturak ▶ Landa Goikoan 40 etxebizitza babestu egingo dituzte. Lanak 2012aren inguruan amaituko dira. Izena emateko zerrindak «laster» jarriko dituzte.

«Babestutako etxebizitza bakar bat ere ez da eraiki azken 30 urteetan»

ASIER IMAZ

Etxebizitzaren gaia «legealdi honen lehen egunean» hasi omen ziren lantzen Hautetsi Independentistak, Xabier Zabalo (Leitza, 1981) alkatearen esanetan. Bi urte hauetan ereindakoa, Landa Goikoan hasi dela loratzen.

Etxebizitzaren eraikuntza lanak hasi dira ala hastear daude?

Urbanizazio lanak astelehenean ziren hastekoak. Baina euriagatik urea honetan geldirik daude.

Zenbat etxebizitza egingo dituzte Landa Goikoan?

Goikoan 40 eta Behekoan, bigarren fase batean, 216. Hauetatik 166 Babes Ofizialeko Etxebizitzak izango dira eta 50 libreak. Batzordetik pasatu denean proiektu hau, udal-etxeko talde guztiak ados agertu dira.

Landa Goikoan denak babestutako al dira?

Bai. 24 babes ofizialekoak eta 16 tasatuak.

Zergatik denak babes ofizialekoak?

Leitzar gazte jendea herritik joaten ari zela ikusten genuen; biztanle kopurua edo eroldak beharantz zihozela. Bestalde, etxebizitza libreak bakarrik daude herrian, eta hauek oso garestiak dira. 40 edo 50 milioitako etxez ari gara hitz egiten. Azken 30 urteetan Leitza ez da babestutako etxe bakar bat ere egin. Pentsa denbora horretan beste herriek eraman duten erritmoa. Leitza berriz blokeatuta gelditu da.

Bi eremu hauetako lurrak Udalarenak al dira?

Gehienak partikularrenak. Landa Behekoan lurren %10a Udalarena da, eta Goikoan gutxi gora behera %8a.

'Etxebizitza babestu gehiago, irabazi gutxiago'.

Gu duela bi urte hasi ginen propo-

samen honekin lanean, eta adostasun batera iritsi gara. Krisiaren ondorioz eraikuntza erori egin da, baina Udalak egindako proposamen hau, bi urteko lanen ondorioa da. Alde guztien artean negoziazio oso serioa izandu dela azpimarratu nahiko nuke.

Hau da, hasieratik ideia argi batekin aritu zarete lanean. Eta aurreko legealdian zegoen proiektua alde batera utzi duzue.

Gu Udalera etorri ginenean, 321 etxebizitzako proiektu hori zegoen mahai gainean. Guk alternatiba bat prestatu genuen eta hori onartu da. Gure datuen arabera, oraingoak aurreko proiektuarekin ez dauka deus ikustekorik. Askotan zifretan nahasi egiten gara: 321. Bai, baina 321 etxebizitza zer? Zein motatakoak? Landa Behekoan 216 etxebizitza entzutean, guri ere beldurra ematen digu, baina horietatik 166 babestutako izanen dira. Nahi bagenuen 150 libre egiteko aukera genuen, baina oreka bat bilatu behar dela uste dugu, nahiz eta ez den erraza.

Biztanle kopurua igo egingo al litzateke?

Gure asmoa ez da Leitza 4.000 biztanleko herri batean bilakatzea, 3.000 inguru horretan mantentzea baizik. Baina herrikoek bertan gelditzeko aukera izatea nahi dugu, joaten ari baitira. Arazo bat dago eta horri Udalak erantzun azkar bat eman beharra zeukan. Legealdiaren hasieran jendeari lanean ari ginela esaten genion, baina ikusten duzu, bi urte pasatu dira. Etxebizitza beharra duenak lanean ari garela ikusten baldin badu, esperatu dezake; ez baita berdina «ari gara, ari gara» entzutea edo ari garela ikustea. Landa Goikoa hori izan da, arazo bati eman beharreko irtenbide azkarra.

Landa Behekoa zer da, etorkizunari begirako proiektu bat?



Xabier Zabalo, Leitzako alkatea, Landa Goikoan. A. IMAZ

Landa Behekoa konplikatua goga da. Katastroarekin arazoak daude eta hirigintza aldatetek luzeago joko dute. Hala ere, 216 etxebizitza ez dira lau urtetan eraikiko. Proiektu hau garatu aurretik 10 urte ere pasa daitezke. Izan ere, momentu batean 40 etxebizitza eskari bakarrik baldin badaude, etxebizitza-sustatzailea ere ez da hor sartuko. Helburua ez da etxebizitza guztiak bat-batean egitea, eraikitzeo aukera hor edukitzea baizik; baratza prest edukitzea, biharko egunean eta beharren arabera landu ahal izateko.

Jendeak eraikitzen hasi diren etxeak erosi ahal izateko, lehenik zerrinda batean eman beharko

du izena. Noiz zabalduko duzue izena emateko aukera hori?

Zerrindak orain irekiko dira. Nafarroako Gobernuaren Babes Ofizialeko Etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioa falta zaigu. Aste batean edo 15 egunetan etortzea espero dugu. Orduan, hilabeteko tarte batean, izena emateko aukera egingo da.

Zein baldintza hartuko dira kontutan?

Nafarroan ez da Gipuzkoan bezala izaten. Baremo batzuen arabera izaten da hemen: soldataren arabera; familiaren arabera; bakarrik bizi baldin bazara; herriaren eroldatuta baldin bazau... puntu batzuk izaten dituzu.

Herrikoek puntu gehiago lortzeko aukera dute, beraz.

Adibidez, Udalarenak diren partzeletan, herrikoak bakarrik sartu daitezke. Horretarako gutxienez, bi urte eraman behar dituzte Leitza eroldaturik.

Ezker abertzalearen baitan alokairu babestuaren aldeko apustua aldarrikatzen duen korronte-rik bada. Proiektu honetan ez da horrelakorik ikusten?

Oso zaila da Nafarroako Gobernuaren arauekin eta legeekin gure politikari egitea. Errealitatea kontuan hartu behar da. Orduan, hau gure proiektua al da? Ez. Hau errealitateak, gestioak, lur-jabeek eta udalaren egoera ekonomikoak eman dezakeen aukerarik egokiena da gure ustez. Errealitatearen aurrean egin dezakegun omena da. Hobeki egiterik baldin badago, aurkeztea nahikoa da. Gure proiektua nolako izango litzatekeen? Kafe bat hartzen esplikatuko dizut Nafarroako Gobernua iristen garenean zer egingo genukeen. Bestalde, egia da Landa Goikoan ez dugula alokairuaren bide-rik aztertu. Hala eta guztiz ere, Udala Leitzako etxebizitza hutsen inguruan azterketa bat egiten ari da, horiek alokairura bultzatu nahian. Udalak ondoren bitartekari lanak egingo lituzke, alokairuan bizi nahi dutenen eta etxebizitza hutsen jabeen artean.

Herri askotan bezala, Leitza ere etxebizitza huts asko omen dago.

Ezker abertzaleak Leitza 100 etxebizitza huts egon litezkeela kalkulatu izandu du. Gauzak ofizialki egiteko ordenantza bat onartu genuen, eta oraingoz 54 kontatu ditugu. Urte bukaerarako nolabaiteko zerrinda bat edukiko dugu.

Ohiko udal bilkura batean, herriko etxebizitza hutsen inguruko zergak ere hizpide izan zenituzten.

Bai. Modu positibotik joatea erabaki genuen, hau da, ez kargatzea. Ni seguru nago, kargatzen hasten baldin bagara, Leitza ofizialki etxebizitza hutsik ez dela egongo. Horretarako nahikoa da hiruro hila-betez behin, iturria zabaldu eta bost edo sei ur litro pasatzen uztea. Horregatik hobe bide positibotik jotzea eta pixkanaka pixkanaka jorratzea bide hori.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



15°
11°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 16°
HOTZENA 12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Amasa.** San Martin jaiak: arratsaldean txokolate beroa, 20:00etan XVIII. Bakailao Lehiaketa frontoian eta 23:30ean Laiotz.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Xabier Arzallusen *Euskal Herria, mapa bat baina gehiago* hitzaldia Kultur Etxean 19:30ean.

Kultur asteak

■ **Amezket.** *Ipar gazi hego geza*, bizikletaz familia giroan bidaizteko esperientzia ikusteko aukera, gela balioanitzean 20:30ean.
■ **Berastegi.** 17:00etan eskolako jangelan Idoia Sanchezen ipuinak; eta 21:00etan eskolako garbaran *Hondakinen birziklaketa eta traste zahar bilketa* Berastegin hitzaldia eskainiko du Xabier Lekuonak.

Mendia

■ **Anoeta.** Kirol Astea: *Elbrusen* goizera udal aretoan 19:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** Zine-forumean, *Anticristo* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, jatorrizko bertsiio azpititulatu.

Deialdiak

■ **Aduna.** Loatzeko Musika Eskolak Santa Zezilia egunean, 22an, bazkaria antolatu du ikasle guztientzat. Txartelak salgai udaletxean 16 eurotan (haurrek zortzi euro).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Irrien lagunak, HITZArekin

Tolosaldea-Leitzaldea » HITZAren eskutik, Pirritx eta Porrotx pailazoaren disko eta DVD berria eskuratu daiteke dagoeneko.

ERREDAKZIOA

Ikasturte berriarekin, aurreko ikasturteari begira jarri ziren Pirritx eta Porrotx pailazoak. Ikasturte amaierako Sudur Gorrien festan, denak biribilean elkarrekin eseri eta ikasturtean zehar gertatutakoa gogoratzeari ekin diote. Denek badute zerbait gogoan. Denek badute kontatzeko zerbait. Kontu horiek eta horien inguruko abestiak bildu dituzte pailazoek *Irrien lagunak* disko berrian.

Haur bati amona hil zaio, bestea Senegaldik iritsi da, Tereixa andereñoa eta Galiziatik heldu da eskolara, eta abar. Batzuen eta besteen kontuekin, hogei istorio eta bizi-pen bildu dituzte diskoan, abesti bihurtuta.

Hainbat lagun eta kolaboratzaile izan dituzte Pirritxek eta Porro-

txek disko berri honetarako. Besteak beste, Jon Maia, Aitor Gorrosabel, Joseba Sarrionandia, Xabi Zabala, Maialen Lujanbio, Ainhoa Agirreazaldegí, Asier Gozategi, Peio eta Pantxoa edota Kaki Arkarazok hartu dute parte pailazoan

Hainbat lagun eta kolaboratzaile izan dituzte pailazoek disko berri honetarako

diskoan, Bilboko konpartsekin batera.

■ **'Piratak' ikuskizuna, DVDan** Disko berria ez ezik, *Piratak* ikuskizunaren DVDa ere eskuratu daiteke dagoeneko HITZArekin.

Azken urtean, piraten itsasontzira igo eta Euskal Herriko hainbat herri eta bazterretan ibili dira, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, Patakon eta Kattalin piratekin batera.

Ikuskizun hori grabatu egin dute pailazoek, eta gainera erreportajeekin, bideoklipekin, abes-



Gaurtik aurrera, HITZAren harpidedunek Pirritx eta Porrotx pailazoaren disko eta DVD berria eskatu ahal izango dute. HITZA

tiekin, partiturekin eta karaokea-ekin osatu dute DVDa.

Donostiako piratek abuztuaren egiten duten abordatzea, Aitor Gorrosabel abeslariarekin Bermeon

grabatutako bideoklipa, eskola-txiki-ekin inguruko erreportajea, fisioterapia kontuak eta beste hainbat ezusteko aurki daitezke DVD berrian.

» 'IRRIEN LAGUNAK' ETA DVD BERRIA, HITZA-REKIN

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZArekin eskuratu daitezke gaurtik aurrera *Irrien lagunak* disko berria, eta *Piratak* ikuskizunaren DVDa.

■ **Noiz.** Gaurtik aurrera.
■ **Nola.** Bi modu daude diskoa edota DVDa eskatzeko, telefonoz eta posta elektronikoz:
Batetik, HITZAren bezero arretarako 902-820201 telefonora deituta.
Bestetik, *harpidetza@hitza.info* helbidera idatziz, eta bertan HITZAren harpidedun kodea adierazi.

'IRRIEN LAGUNAK' DISKOA

■ **Abestiak.** Sudurgorrien Festan, ikasleak amaitu den ikasturteari begira jarri eta gogoan dituzten 20 kontu eta istorio bildu dituzte.
■ **Prezioa.** 16 euro.

'PIRATAK' DVDa

■ **Piratak.** *Piratak* ikuskizunaren DVDa. Bertan jasota dago ikuskizuna bera, abestiak, bideoklipak, erreportajeak, ...
■ **Prezioa.** 18 euro.

Pirritx, Porrotx eta MariMotots

IRRIEN LAGUNAK CDa
16 €



Euskal pirata bihurriak gara;
zatoz gurekin irriak aboratzera!


Noiz eta nola egin eskaria?

Azaroaren 30 arte:

- 902-82 02 01
- *harpidetza@hitza.info*

Bidalketa gostuak doan

hitza



PIRATAK
DVDa
18 €

